

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Ehun urteko abstrakzioa



WWW.CV.UOC.EDU

Lehen akuarela abstraktua (1910) lanaren bidez, Wassily Kandinskyk pintura garaikidearen bide nagusietakoa zabaldu zuen.

MUNICH, 1910. Wassily Kandinsky (Mosku, 1866-Neuilly-sur-Seine, 1944) margolariak *Lehen akuarela abstraktua* burutu zuen, inolako erreferentzia figuratiborik ez zuen lehenengo artelana, alegia.

Musika, folklorea eta etnografia zituen gustuko Kandinsky errusiar gazteak, baina zuzenbide eta ekonomia ikasketak egin zituen. 1889an Parisera bidaia egin eta Rembrandten koadroen erakusketa bat ikusi zuen; orduan piztu zitzaion pinturarekiko grina. Handik urte batzuetara, 1895ean, frantziar inpresionisten lanez osatutako erakusketa bisitatu zuen eta, karrera juridikoa baztertuta, pinturan jardutea erabaki zuen.

Hurrengo urtean Munichera joan zen lanbide berria ikasteko. Hainbat urtetan beste herrialde eta hiri batzuetan, bereziki Parisen, egonaldia luzeak egin eta gero, 1907an Alemaniako hirian finkatu zen. Hantxe nahiz Murnauko udako etxean abiatu zuen hiru urte geroago abstrakzioaraino eramango zuen bidea. Paisaiak egin zituen batez ere. Kolore

puruak, biziak erabiltzen zituen paisaia horietan, gero lan abstraktuetan bezala. Formak desegiten joan ziren, eta elementuak gero eta sakabanatuagoak zeuden errusiarraren obretan.

1910ean burutu zuen errealitatearen disoluzio prozesu hori, historiako lehen artelan abstraktua egin zuzenean. Artelan iraultzailea izanagatik, euskarri apala eman zion Kandinskyk. Bigarren mailakotzat jotzen zen teknika erabili zuen, akuarela, eta, beraz, paperaren gainean egin zuen. Neurritz ere ez da artelan handia: 50 x 65 zentimetro neurtzen du, gutxi gorabehera.

Finean, esperimentera zen. Lehengo beste abangoardia batzuk hasi ziren artearen autonomia osoa lortzeko ahaleginean. Fauvismoak eta espresionismoak kolorea askatu zuten; kubismoak, aldiz, ohiko formak eta konposizioak hautsi zituen. Baina zuzenbidean lizentziatutako errusiarra izan zen azkenean osagai horiek nahastu eta abstrakzioaren formula aurkitu zuena.

Arrastoak

Espainiako uso militarrei agur

USO MEZULARIRIK ez du izango hemendik aurrera Espainiako armadak, martxoaren 8ko Errege Dekretuaren arabera. BOEn argitaratutako testuak dioenez, “teknologia berriek modu eraginkorrean asetzen dituzte Defentsako lotura beharrak” eta, hortaz, funtzio militarrek zituzten usoei erretiroa eman diete. 330 ale gertzen ziren Madrilgo erregimentuan.

Uso horien soldadutza 1879an hasi zen Espainian, baina ordurako munduko armada askotan erabiltzen zituzten. Uso horiek egunean 700 kilometro egiteko ahalmena dute, baina norabide bakarrekoak dira: abiapuntura itzultzeko gaitasuna baino ez dute. 1937an frankistek uso bati insignia jarri zioten, egindako lana eskertzeko. 46.415. alea zen. Gero, diseatuta, Armadaren Museoa ipini zuten ikusgai.



WWW.UPRM.EDU

Alemaniako armadako uso mezulariak 1917an.